

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hezkuntza Departamentuak Educalingua autoikaskuntza plataforma berrabiarazi du irakasleentzat

*Euskara, ingelesa, alemana eta frantsesa online ikasteko aukera eskaintzen du plataformak*

Ostirala, 2017.eko maiatzak 19

Educalingua hizkuntza gaitasunak hobetzeko aukera ematen die 2016-2017 ikasturtean sare publikoan zein kontzertatuan irakasle aritu direnei. Tresna honekin hizkuntza maila hobetzen laguntzeko balio du, baita A1 C1era bitarteko maila-frogak egiteko ere.

2015ean eskaini zen lehenengoz online plataforma eta jada orduan 2000 erabiltzaile izan zituen, 4 hizkuntza-eskaintzarekin: alemanera, euskara, frantsesa eta ingelesa. Urtebetez hizkuntza berri bat ikasteko edo sakontzeko aukera izan zuten orduan modu entretenigarri eta eroso batean, edozein lekutatik eta edozein unetan. Orain plataforma berriz ere abian dago, ikasturtean zehar aktiboan egon diren irakasleentzat.

2017-2018 ikasturte hasieran tutoretza izateko aukera izango dute parte-hartzaileek, ahozko eta idatzizko taldekako ariketak egin ahal izateko, baita egindako ariketen inguruan erantzuna jasotzeko ere. Plaza hauetarako eskaintza Hezkuntza departamenduaren webgunean iragarriko dira.

Hizkuntza eta maila eskaintza:

- Alemanera (A1 eta A2)
- Euskara (A1etik C1era)
- Ingelesa (A1etik C1era)
- Frantsesa (A1etik C1era)

Izen-ematea hurrengo helbidean <https://educacion.lingua.es/login>